

**1. BEHARREZKOA AL DA FAMILIEI BAIMENA ESKATZEA ISEI-IVEI PLATAFORMAN IKASLE BAKOITZAREN GALDETEGIA BETE AURRETIK?**

Ez. Behaketa-eskala curriculumarekin eta ikasgelan egunero egiten den lanarekin oso lotuta dagoenez, ez da beharrezkoa familien idatzizko baimena izatea, baina beharrezkoa da (ikasturte-hasierako bileran edo, bestela, gutun bidez) jakinaraztea ikasturteko bigarren edo hiruhilekoan baheketa hori egingo dela funts publikoekin lagundutako EAEko ikastetxe GUZTIETAN, Lehen Hezkuntzako 1. eta 6. mailetan.

Hala ere, baheketa-fasea gainditzen duten ikasleen kasuan, 2. eta 3. faseetarako baimena sinatu beharko dute, hala badagokio.

2. NOLA JAKIN ZENBAT IKASLEK GAINDITU DUTEN DETEKZIO ESPEZIFIKOKO BIGARREN FASERA IGAROTZEKO BEHARREZKO PUNTUAZIOA?

ISEI-IVEIren AGH plataformak berak adieraziko du, denbora-tarte labur batean, zenbat ikasleak gainditu duten eskalarako ezarritako eten-puntuak.

3. SARTU BERRI DIREN IKASLEEN KASUAN, GALDETEGIAK ERE PASATU BEHAR AL DITUT?

Bai, baina bereziki hitzezkoak ez diren osagaiei erreparatuko diegu.

4. IKASLE DISLEXIKO BATEK, TDAH-REKIN EDO ASPERGER-NAHASTE BATEKIN, ADIMEN-GAITASUN HANDIA IZAN DEZAKE?

Bai. Salbuespen bikoitzeko ikasleak izango lirateke, irakurketa-idazketan edo beste alderdi batzuetan zailtasunak izan ditzaketenak eta, hala ere, funtzionamendu handiagoa izan dezaketenak eremu ez-hitzezkoetan, espazioetan, sormenezkoetan eta abarretan.

Hasiera batean, zailagoa izan daiteke hautematea "gure ikusbetaurrekoak" aldatzen ez baditugu; izan ere, askotan, ikasleen indarguneak baino sentikortasun handiagoa izaten dugu ahulguneak hautemateko.

5. PROTOKOLOAK ESKATZEN DUEN BERARIAZKO FASERAKO PROBARIK EZ BADU IKASTETXEAK. ZER EGIN?

Protokolo honen eraginpeko ikastetxe guztiek, hau da, funts publikoekin ordaindutako ikastetxe publiko eta itunduek, probak izan beharko dituzte.

Kanarietako Autonomia Erkidegoan barematutako TORRANCE sormen-proba oso gomendagarria da, eta doan deskarga daiteke esteka hauetan:

- [Adaptación y baremación del test de pensamiento creativo de Torrance: expresión figurada. Educación Primaria y Secundaria. \(E. Jiménez, C. Artilés et al\)](#)
- [PVEC4. Prueba verbal de creatividad. Baremos para la Educación Primaria y Secundaria Obligatoria. \(E. Jiménez, C. Artilés et al\)](#)

6. ¿ NOLA JOKATU IRAKASLE TUTOREAK BERE GELAKO IKASLE GUZTIEN EZAGUPEN NAHIKOA EZ BADU ESKALA IRIZPIDEZ BETETZEKO?

Irakasle tutoreen eginkizuna da ikasleen indarguneak eta ahuleziak orokorrean ezagutzea. Gainera, irakasle aholkularien/orientatzaileen laguntza du. Horregatik ezarri da LH1. mailako bigarren hiruhilekoan edo LH6. mailako hirugarren hiruhilekoan.

Nolanahi ere, oso komenigarria eta beharrezkoa da gelan irakasten duen irakasle taldearekin koordinazioa ezartzea. Ildo horretatik, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta EAEn ezartzeko Dekretuak proposatzen duen diziplinarteko lana elementu bideratzailea da, ikasgela bakoitzeko ikasle guztiak hobeto ezagutzeko bidea emango duena.

7. ETA NIRE GELAN ADIMEN-GAITASUN HANDIKO IKASLEAK BADAUDE, ESKALA ERE BETE BEHAR DUGU?

A priori, ez da beharrezkoa proposatutako hiru faseak egitea. Hala ere, identifikazioa duela bi ikasturte baino gehiago egin bazen, bereziki DBHko ikasleekin, komenigarria litzateke ebaluazio psikopedagogikoa eguneratzea eta, jakina, hezkuntza-erantzunaren eta adostutako neurrien jarraipena egitea.

8. ETA GAITASUN INTELEKTUAL HANDIKO ADIERAZLEAK AURKEZTU BAINA PROTOKOLOA APLIKATZEN DEN BI IKASTURTEETAKO BATEAN ERE ESKOLATUTA EZ BADAGO, NOLA JOKATU BEHAR DUT?

Zantzuak antzematen diren maila guztietan balorazio prozesu bati ekin behar zaio, eta horretarako irakasleentzako eta familiarentzako tresnak daude. AGH atzemateko protokoloa Derrigorrezko Irakaskuntzaren bi une jakinetan diseinatuta dago, baita [Haur Garapenaren Jarraipenerako Protokoloan](#) jasotako goiztiartasun-adierazleak ere.

Hala ere, tresna horiek [Hezkuntza-orientabideak](#). [Gaitasun intelektual handiko ikasleak](#) dokumentuan aurki ditzakegu.

Beraz, orain arte egin den ezusteko detekzioa eta aipatutako mailetan bahetze unibertsal edo screening bidezko detekzioa batera gertatzen dira.

9. NOLA JOKATU GAITASUN INTELEKTUAL HANDIKO IKASLEEN KASU BAT IDENTIFIKATU ETA EGIAZTATU ONDOREN?

Lehenik eta behin, Jarduera Plan Pertsonalizatua prestatu behar da, ikasgelako curriculum arlo edo irakasgai batean edo gehiagotan aberasteko. Plan hori aldizka ebaluatu behar da, eta ohiko neurri espezifikoa nahikoak ez direla ikusiz gero, aparteko neurriak har daitezke, hala nola, *curriculumaren zabaltze-egokitzapena* (goragoko maila bateko gaitasunak erreferentziatzen hartuta) edo *mailaren malgutzea*. Eta hori guztia [Hezkuntza Sailburuordetzak Haur eta Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan ikasturtea antolatzeke emandako ebazpenetan \(ikasturte-hasierako ebazpenak\)](#) ezarritako epe eta prozeduren arabera.

10. FAMILIA BATEK BAIMENA EMAN BADU BERE SEMEA/ALABA DETEKZIO ESPEZIFIKOKO FASEAN BALORATZEKO, BAIMEN HORI GERO KEN DEZAKE EBALUAZIO PSIKOPEDAGOGIKOAREKIN JARRAITZEKO?

Bai. Edozein familiak edo legezko tutoreak noiznahi du eskubidea bere erabilera zuzendu, ezabatu edo mugatzeko.

